

Hinduistak dira eta kasten arabera-ko gizarte-sistema dute. Nekazariak dira batik bat, eta ezkontza-sistema endogamikoa dute.

PAHUINAK. Afrikako fang herriaren beste izen bat.

PAIAGUAK. Paiaguak Argentinako Chaco Handian bizi dira. Tribu amerindiar hau guaikuruen familiakoa da. Arrantzale trebeak dira eta egiten dituzten kanoak direla eta, ospetsuak dira (ikus 264. or.).

PAKSAK. Titikaka lakuaren inguruan bizi den aimara herri amerindiarren azpitaldea.

PALAKUAK. Filipinak eta Indonesiako Bajau Laut talde etnikoaren beste izen bat.

PALESTINARRAK (iz. pr.

FILASTINIYYUN). Mediterraneoaren ekialdeko ertzean dagoen Palestina izeneko lurraldean bizi den herri arabea osatzen dute palestinarrek. Itsasotik Jordan ibairaino iristen da ekialdean, iparraldean Libanorekin egiten du muga, eta hegoaldean Sinai penintsularekin, Gaza eskualdea barne duela. Azken eskualde honetan antzina bizi zen filistiarraren izenetik dator Palestina izena, erromatarrek K.o. II. mendean Judea osoari eman ziotena, bertako judu gehienak alde eginak zirelarik. Mende luzetan, inperio islamiarraren, kristau-erresumen eta otomandar inperioaren barruan tributan sakabanaturik bizi ondoren, nazio-kontzientzia bizia hartzen hasi zen XX. mendean, otomandar inperioa desegin eta 1920an Erresuma Batuaren babespeko Palestina sortu zenean, eta mugimendu sionistaren ondorioz judu-oldeak diasporatik lurralde hartara itzuli eta bertako lurretan bizitzen jarriaz zihoazelarik.

Agintari ingelesaren aurka ezezik, gero eta indar handiago hartuz joan zen komunitate juduaren aurka borroka etengabea eraman zuten palestinarrek, 1948an Israelgo estatu judua eraiki zen arte, Palestinako lurraldearen partetik handiena hartuz. 1948ko arabiarren eta juduen arteko gerraren ondorioz, palestinar milaka askok (750.000 inguruk) beren herriak utzi behar izan zituzten, atzerrira, batez ere Jordaniara, alde eginez, edota errefuxiatu-kanpamendu jen-

detsuak eratu (Jordania, Gazako lurralde-zerrendan, etab.).

Bost milioi inguru dira palestinarrek. Israelgo estatu bizi dira 750.000; milioi bat eskas Zisjordanian, 650.000 Gazan, 1,5 milioi Jordania, 350.000tik gora Libanon; eta gainerantzekoak gehienbat inguruko herrialde arabiarretan sakabanaturik (Egipto, Siria, Saudi Arabia, Kuwait, Irak). Palestinar gehienak musulman sunniak dira; gutxiengo txikia kristauak dira. Arabieraren dialekto batez hitz egiten dute.

Israel estatuaren aurka, eta autodeterminazio-eskubidearen alde borrokatu dira palestinarrek 1948. urteaz geroztik, Palestina osoa hartuko lukeen estatua eraikitzeko; horretarako sortu zen 1964an Palestinarren Askapenerako Erakundea (PAE). 1967an Israelek Palestina osoa konkistatu, eta Jordaniaren menpean zeuden Zirsjordia eta Gaza palestinarren lurraldeak okupatu zituen. 1987an Intifada izeneko herri-aitxamen-duari ekin zioten, israeldarren aurka; eta 1988an PAEk Palestinako estatu independentea aldarrikatu zuen erbestean.

1993ko irailean, EEBBen babesean, Israelek eta PAEk Gazarako autonomia osoa eta Jerikorako mugatua biltzen duen akordioa onartu eta elkar ezagutzera sinatu ondoren, 1994ko maiatzean lurralde okupatuaren epeko autonomi prozesurako hitzarmena sinatu zuten; horren arabera Israelgo armada palestinarren hiri nagusietatik erretiratu, eta Palestinako gobernuaren eratu zuten. 1996an Palestinako lurralde autonomoetako parlamenturako lehen hauteskundeak egin ondoren, Jasser Arafat aukeratu zuten lehendakari.

Autonomi prozesu gradualeko oso zaila eta kontradiktorioa gertatzen ari da; eragozpen nagusietako bat Israelek okupaturiko lurraldeetan eraikitako juduen kolonia ugariak dira; arazo nagusietako bat, berriz, Jerusalem hiriarrena, bi zatitan banatua, eta Israelek osorik bere hiriburutzat ezarri nahi duena. Gainera palestinar eta atzerritarriko milaka palestinar askoren arazo oraindik aidean dago.

Autonomi prozesuaren aurkako taldeek (Hamas izeneko nagusiki) borrokan jarraitzen dute, Israel estatuaren aurka eta palestinarren independentzia lortzeko asmoz.

PAMATSI. Bulgariako pomak talde etnikoaren izen propioa.

PANANAK. Ipar Amerikako pawnee tribuaren beste izen bat.

PANAYANAK. Filipinetako hilgaynon talde etnikoaren beste izen bat.

PANIAK. Ipar Amerikako pawnee tribuaren beste izen bat.

PANIKAK. Panikak Indian bizi dira, Madia Pradesh estatuko Maikal mendietan. Kide gehienak hinduak dira eta, oro har, beste tribuaren batekin nahasirik bizi dira. 1981. urtean 53.000 kide ziren eta bi talde nagusi bereizten dira: kabirpantiak eta saktak. Kabirpantiak talde handiagoa osatzen dute, nekazari sedentarioak dira eta aurreratuagoak daude. Saktak talde txiroa osatzen dute; fruitu-biltzaileak eta nekazariak dira batik bat eta mendialdean bizi dira.

PAPELAK. Ginea Bissauko pepel talde etnikoaren beste izen bat.

PARATXIAK. Paratxiak Afganistango Hindu Kush mendikatearen hegoaldeko bailaran bizi dira. 5.000 kidez osaturiko taldea eratzen dute eta hizkuntza irandarren familiakoak dira. XVI. mendean geroztik musulman sunniak dira eta merkataritzaz eta nekazaritzaz bizi dira. XIX. mendean haien gainbehera hasi zen. Gaur egun paratxi gutxi gelditzen dira eta gehienak paxtoekin nahasirik bizi dira.

PARDANAK. Pardanak Indiako Andra Pradesh, Madia Pradesh eta Maharashtra estatuetan bizi dira. Hizkuntza dravida eta indoariaren familiako telugueraz, gondiz eta marathiz hitz egiten dute. Musikariak eta poetak dira batik bat, eta 1981. urtean 133.000 kideko taldea osatzen zuten (ikus 265. or.).

PARDIAK. Pardiak Indiaren iparraldean, mendebaldean eta erdialdean bizi dira. Ehiztari talde nomada da eta gaur egun 60.000 kideko taldea osatzen dute.

PATAGONIARRAK. Hego Amerikako Patagonian eta Suaren Lurraldean bizi dira. Herri amerindiar hau tehuelte eta ona taldeek osatzen